

## **UNIBERTSITEKOAK EZ DIREN BEKAK (Unibertsitatekoak ez diren mailetako ikasleak eskolatzea)**

### **Prozeduran «aurkeztu» behar al dut?**

Eusko Jaurlaritzaren zerbitzu juridikoek Deialdiaren Aginduaren legezkotasuna defendatu behar dute. Prozeduran banaka aurkeztea, beraz, ez da beharrezkoa, baina norberak hartu beharreko erabakia da; horrek, baina, abokatu eta prokuradorearekin batera joatea dakar, eta kasu askotan, kostu jakin batzuk ordaindu behar izatea.

### **Zer gertatzen da aurkeztu ezean?**

Deialdiaren agindua defendatzea Eusko Jaurlaritzaren esku uzten duzu soilik.

### **Zer dakar prozeduran aurkezteak?**

Alderdi kodemandatu gisa deialdiaren agindutik datozen zure eskubide eta interes legitimoak zure argudioak erabiliz defendatuko dituzu. Kodemandatu gisa ezin diozu aginduari aurka egin.

### **Prozeduran aurkezteak kosturik al dakar?**

Bai; abokatu eta prokuradorearekin batera aurkeztu beharra dago, eta horrek kostu jakin batzuk dakartza, betiere doako laguntza juridikorako eskubidea onartzen ez bada, Doako laguntza juridikoaren urtarrilaren 10eko 1/1996 Legean xedatutakoarekin bat etorritz.

### **Zer epe dut aurkezteko?**

Aurkezteko epea bederatzi egun baliiodunekoa da, aipatutako ebazpena argitaratzen denetik hasita; hortaz, 2015eko apirilaren 1ean, asteazkena, amaituko da.

### **Beken eskabideen izapideak etengo al dira?**

Laguntzen ezaugarriak direla eta (unibertsitatekoak ez diren bekak), Hezkuntza Sailak eskabideak izapidetzen jarraitu behar du 2014ko urriaren 22ko Aginduan zehaztutako moduan.